

191. Fitxa Energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuetarako pizgarri programen bigarren deialdia (RENORED programa) - NGEU

Nori zuzendua: merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik egiten ez duen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, legez eta balio osoz eratua (2. Pizgarri Programa).

Sarbide-esteka: [Bero- eta hotz-sareen proiektuetarako pizgarri programen bigarren deialdia IDAE egoitza](#)

Erreferentziatzko araudia: [Ebazpena, 2025eko abenduaren 18koa, E.P.E. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren \(IDAE\) M.P. Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuetarako pizgarri programen bigarren deialdia egiten baita, \(RENORED programa\), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU](#)

Eremuak: Energia-trantsizioa

Zenbatekoa: 50.000.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/01/21eko 09:00etatik 2026/02/27ko 13:00etara.

Laburpena

Energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuek jaso ahal izango dute laguntza, bai eta ekoizpen-instalazioak, banaketa-sareak eta beroa eta/edo hotza kontsumitzen dutenentzako konexioak egiteko inbertsio-jarduerak ere.

Eskatzaile batek diruz lagun daitekeen proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina eman beharreko laguntzak ezingo du gainditu **proiektu eta onuradun bakoitzeko 15.000.000 euroko muga**, ez eta **proiektu bakoitzeko 450.000 euroko gutxieneko inbertsioa** ere.

Ekintza-lerroak

Energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuak lagunduko dira diruz, energia berriztagarrietan oinarritutako dibertsifikazio energetikoa lortzeko, eta, horren ondorioz, erregai fosilekiko mendekotasun energetiko txikiagoa izateko eta CO2 eta metano emisioak murrizteko.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak honako hauek dira:

1.1.1. tipologia (T1). **Sortze zentral berria eta banaketa sare berria:** nahitaez, energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten bero- edota hotz-sorkuntzako zentral bat edo batzuk zein kontsumo zentroetara energia trukatzeko konexioak dituzten banaketa sare bat edo batzuk barne hartzen dituzten instalazio berriak.

1.2.2. tipologia (T2). **Lehendik dagoen sortze zentrala handitzea edo ordeztea:** lehendik dagoen sortze zentral bat handitzea edo ordeztea, lehendik dagoen banaketa sare bati beroa edota hotza emateko, energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sortze ekipo berriak gehituz edo daudenak ordezkatzuz.

1.3.3. tipologia (T3). **Dauden banaketa sarea eta konexioak handitzea:** lehendik dagoen banaketa sare bat handitzea, bere konexioekin kontsumo zentro berrietara beroa edota hotza eramango duena. Dagoen sortze-ahalmenak energia-iturri berriztagarriak erabili beharko ditu.

Eskabide bakarra egin beharko da aurreikusitako edozein pizgarri programatan laguntza jaso nahi duen **instalazio bakoitzeko**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako kontzeptu hauek hartuko dira kostu hautagarritzat:

- a. Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologien berezko ekipoak.
- b. Sistema elektriko, hidrauliko, ponpaketadun, tresneriadun eta osagarriak.
- c. Kontrol-, monitorizazio- eta komunikazio-sistemak.
- d. Eskaria kudeatzeko eta monitorizatzeko sistemak.
- e. Instalazioari lotutako obra zibila.
- f. Garraioa, muntaketa, abiaraztea eta saiakuntzak.
- g. Proiektuak eta memoria teknikoak egitea eta idaztea.
- h. Zuzendaritza fakultatiboa.
- i. Segurtasun- eta osasun-koordinazioa.
- j. Saiakuntzak, aztelanak eta probak.
- k. Eskaeraren kudeaketa-kostuak ($\leq$ laguntzaren % 4, gehienez 3.000 €).
- l. Justifikazioaren kudeaketa-kostuak.
- m. Auditoretza-txostena.
- n. DNSH printzipioa betetzeari lotutako kostuak.
- o. Beharrezkotzat jotako eta behar bezala justifikatutako beste partida batzuk.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagun daitezkeen jarduerak **oinarri arautzaileak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren** hasi beharko dira.

Instalazioak erabat amaituta egon beharko dira **2029ko ekainaren 30a** baino lehen, eta onuradunak **2029ko irailaren 30a** baino lehen justifikatu beharko du jarduketa, deialdian aurreikusitako dokumentazio guztia bidalita.